# ILARGIAN KULUNKANTARI

Testua: **ANTONIO RUBIO** eta **XABIER OLASO**

Irudiak: **ÓSCAR VILLÁN**

Kartoi gogorra koloreetan. 16 x 16 cm. 9,50 €/bakoitza.

-Euskara:

**Ilargia**: 16 or. ISBN 978-84-7681-850-3
**Bost**: 12 or. ISBN 978-84-7681-851-0
**Miau**: 16 or. ISBN 978-84-7681-853-4
**Paper-txoria**: 16 or. ISBN 978-84-7681-875-6
**Krokodiloa**: 16 or. ISBN 978-84-7681-852-7
**Zapata**: 16 or. ISBN 978-84-7681-874-9
**Biolina**: 16 or. ISBN 978-84-7681-876-3
**Arbola**: 16 or. ISBN 978-84-7681-873-2
**Animaliak**: 18 or. ISBN 978-84-9172-122-2
**Frutak**: 18 or. ISBN 978-84-9172-123-9
**Jostailuak**: 18 or. ISBN 978-84-9172-227-4
**Bidaiak**: 18 or. ISBN 978-84-9172-226-7
**Haurtxoa**: 16 or. ISBN 978-84-9172-289-2
**Txoriak kantari**: 16 or. ISBN 978-84-9172-290-8
**Limoia**: 16 or. ISBN 978-84-9172-367-7

-Gaztelera:

**Luna**: 16 or. ISBN 978-84-933759-7-3 (24x 24 cm-tan eskuragarri)
**Cinco**: 12 or. ISBN 978-84-933759-8-0
**Miau**: 16 or. ISBN 978-84-933759-9-7
**Pajarita de papel**: 16 or. ISBN 978-84-933780-0-4
**Cocodrilo**: 16 or. ISBN 978-84-933780-1-1 (24x 24 cm-tan eskuragarri)
**Zapato**: 14 or. ISBN 978-84-92608-77-5
**Violín**: 14 or. ISBN 978-84-92608-80-5
**Árbol**: 18 or. ISBN 978-84-92608-81-2
**Veo veo**: 14 or. ISBN 978-84-92608-87-4
**Limón**: 16 or. ISBN 978-84-92608-88-1
**Animales**: 18 or. ISBN 978-84-8464-485-9
**Frutas**: 18 or. ISBN 978-84-8464-487-3
**Juguetes**: 18 or. ISBN 978-84-1343-086-7
**Viajes**: 18 or. ISBN 978-84-1343-084-3
**Bebé**: 16 or. ISBN 978-84-1343-164-2
**Do re mi**: 16 or. ISBN 978-84-1343-166-6

-Galegoa:

**Lúa**: 16 or. ISBN 978-84-8464-541-2 (24x 24 cm-tan eskuragarri)
**Cinco**: 12 or. ISBN 978-84-8464-542-9
**Miau**: 16 or. ISBN 978-84-8464-543-6
**Paxariña de papel**: 16 or. ISBN 978-84-8464-544-3
**Crocodilo**: 16 or. ISBN 978-84-8464-545-0
**Zapato**: 14 or. ISBN 978-84-8464-854-3
**Violín**: 14 or. ISBN 978-84-8464-855-0
**Piñeiro**: 18 or. ISBN 978-84-8464-856-7
**Animais**: 18 or. ISBN 978-84-8464-484-2
**Froitas**: 18 or. ISBN 978-84-8464-486-6
**Xoguetes**: 18 or. ISBN 978-84-1343-085-0
**Viaxes**: 18 or. ISBN 978-84-1343-083-6
**Bebé:** 16 or. ISBN 978-84-1343-163-5
**Dó re mi:** 16 or. ISBN: 978-84-1343-165-9

-Katalana:

**Lluna**: 16 or. ISBN 978-84-16804-03-0
**Cinc**: 12 or. ISBN 978-84-16804-04-7
**Meu**: 16 or. ISBN 978-84-8464-952-6
**Un ocellet de paper**: 16 or. ISBN 978-84-16804-71-9
**Violí**: 14 or. ISBN 978-84-8464-954-0
**Sabata**: 14 or. ISBN 978-84-16804-70-2
**Animals**: 18 or. ISBN 978-84-16804-75-7
**Fruites**: 18 or. ISBN 978-84-16804-76-4
**Joguines**: 18 or. ISBN 978-84-18558-17-7
**Viatges**: 18 or. ISBN 978-84-18558-18-4
**Bebè**: 16 or. ISBN 978-84-18558-52-8
**Do re mi**: 16 or. ISBN 978-84-18558-53-5

*Ilargian kulunkantari* bilduma 0-3 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta beraientzat berariaz ondu dira *piktograma poetiko* edo *poegrama* hauek guztiak; poesia piktografikoaren modalitate berri bat izendatzeko hitza da *poegrama,* eta irakurle txikiaren "begia heztu eta belarria eztitu"ko duen irakurketa-erritmoa aurkitzean datza, Antonio Rubioren esanetan.




- **Gaia:** Piktograma poetikoak eta poegramak.
- **Adin egokia:** 0- 3 urte.
- **Nabarmtzekoak:** Ilustrazio errealistak, erritmo eta errimaren bateratzea; "begia heztu eta belarria eztitu", alfabetoa ezagutu, testua eta ilustrazioak identifikatu, ikus-irakurketa; liburu bakoitzak gai ezberdina jorratzen du: koloreak, animaliak, zenbakiak, eguneroko auzak, soinuak, lateralitatea, jolasak, frutak… https://kalandraka.tv/videos/cocodrilo-y-pajarita-de-papel/
- **Liburuen aurrerapenak:** sakatu azalean estekara sartzeko

## Xabier Olaso

(Otxandio, 1964)
Hainbat libururen egilea da, bai helduentzat, bai haurrentzat ere. Heldu literaturaren esparruan poesia jorratu du batik bat egun arte: *Gauaren magalean* (Berminghan, 1996), *Ariaren hariak* (Arabako Foru Aldundia, 1998), *Urtaro* (Berminghan, 1998) eta beste zenbait. Haur literaturaren esparruari gagozkiolarik, berriz, hainbat ipuin, igarkizun eta poema-liburu eman ditu argitara. Honetan, nabarmentzekoak dira Pamiela etxearen eskutik plazaratutako *Auskalo! -Igarkizun eta aho-korapiloak-,* berrikitan argitara emandako *Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak* (Pamiela, 2014) eta, batez ere, Haur eta Gazte literaturako Euskadi Saria jaso zuten *Pupuan trapua* (Pamiela, 2005) eta *Tximeletrak* (Pamiela, 2012) poema-liburuak. Abestietarako letrak ere idatziak ditu.

## Antonio Rubio

(El Puente del Arzobispo, Toledo, 1953)
Berrogei urtez maisu aritu da eta poeta ere bada; irakurtzeko eta idazteko duen grina gehitu behar zaio haur liburutegietan eta irakaskuntzan egindako lanari. Irakurzaletasuna sustatzeko ikastaroetan eta, orobat, irakasleen prestakuntzarako ikastaroetan parte hartzen du. Faktoria Kren Trece lunas poesia-bilduma zuzentzen du. Liburu askoren egilea da eta horietan guztietan nabarmentzekoak dira euskaraz: Sandia-gidaria eta Heldu garen guztiak.
https://kalandraka.tv/videos/antonio-rubio

## Óscar Villán

(Ourense, 1972)
Arte ederretan lizentziaduna da, pintura espezialitatean. Haurrei zuzenduriko *Untxitxo txuria* bere lehen ilustrazio lanaz, (KALANDRAKA), 1999 urteko lehen Ilustrazio Sari Nazionala jaso zuen. Hainbat argitaletxeren eskutik argitara eman dituen hogeita hamar liburuetatik, honakoak dira euskaraz argitaratutakoak: *Kamila Zebra* eta *Piztia arraro bat* (PAMIELA-KALANDRAKA). Bestalde, eskultura eta argazki-lanak egin eta kartelak ere diseinatzen ditu. Orobat, KALANDRAKAren Alfabetos arte-bilduma zuzentzen du.
https://ovillan.com

Bestalde, Óscar Villánen esku –1999 urteko Ilustrazio Sari Nazionala– gelditu da zortzi liburutxo hauen proposamen estetikoa. Artisau-lan hutsa da berea, erraz antzematzen diren pintzelkada eta koloretako tonuez hornitua, halako moldez ezen ehundurak ukitzeko modukoak diren kasik. Hondo argiari gailetzen zaio irudia; marrazkia soil-soila eta erraz antzematekoa da, betiere Villánen beraren ikututxoa agerian dagoela.

Sortzaile bien ekarpenaren alde biak –literarioa eta plastikoa– doitzean datza KALANDRAKAren egitekoa, sortze lanean bideratu eta, finean, behin betiko argitaraldia burutu. Edukiari dagokionean, *Ilargian kulunkantari* bildumaren liburu bakoitza "erraz-erraza den eta musika-indar handia duen ariketa poetikoa da". Gauzak horrela, ba, ezkerretik eskuineraeta, goitik behera irakurri behar duela ikasiko du haurrak eta, halaber, orriak pasatzea bertsoen bilakaera dela.

Grafiak baino, irudiek berek hartzen dute berebiziko garrantzi komunikatiboa. Aise antzematen dira irudiak, eta hitzen antzera eratzen dira, silaba zenbatuekin. Bertsoen gisara eratzen diren irudiak; irudi ordenatuak, neurtuak, erritmodun eta errimadunak. Haur-haurretatik bakarka irakur daitezkeen irudiak dira, finean.


www. kalandraka .com

comunicacion@kalandraka.com

www. Pamiela etxea .com

soltxate@pamiela.com


Liburu bakoitza poema oso bat da eta ezaugarri hauen arabera ondua dago:

- Haur kantutegiaren egitura poetikoaren baitan: gehitzea, zerrendatzea, objektuak banan-banan aipatzea, kateadura, bertsoa, leloa...
- Tradiziozko kantutegiaren bitarteko poetikoak erabiltzen ditu: oihartzunak, errimak, onomatopeiak, anaforak...
- Lehenengo adinen interesguneei lotzen zaie: lehenengo zenbakiak (BOST), koloreak (KROKODILOA), animaliak (MIAU eta ANIMALIAK), ilargi magikoa (ILARGIA), gauzen kokapena espazioan (ARBOLA), eguneroko objektuak (ZAPATA), elikagaiak (PAPER-TXORIA), Frutak eta fruta-arbolak (LIMOIA, FRUTAK), soinuak eta onomatopeiak (BIOLINA), Jolasak (JOSTAILUAK), Garraioak (BIDAIAK). Eguneroko jarduerak eta familia (HAURTXOA), musika-notak eta animaliak (TXORIAK KANTARI).

PAMIELAK eta KALANDRAKAK proposamen irudimentsu eta originala ondu dute, *Zein ote 6 hilbetetik aurrera irakur daitezkeen poemak?* galdera-gakoari bilduma honen bitartez neurri-neurrian erantzun egokia emanez. Doi-doia eta zaindu-zaindua den argitalpen-lana da honen guztiaren emaitza: *Ilargian kulunkantari*. Aurreirakurleek gozatu dezaketen bost liburuak dira, jostailua bailiran erabiltzeko... eta, halaber, heldu batek aurkeztu eta gero, automatikoki irakurtzen jarraitzeko.



Ilargia



Miau



Bost



Biolina



Frutak



Krokodiloa



Paper-txoria



Zapata



Arbola



Animaliak